

KANPOKO LAGUNTZA: JUSTIFIKATU BEHARKO DIRA BETE BEHRA DIREN HURRENGO BALDINTZAK

Jarduketak garatzeko kanpoko laguntzak betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresa.
- b) Gutxienez, 2 urteko antzintasuna teknologiaren eta zibersegurtasunaren sektorean.
- c) Kaudimen teknikoaren frogantza, betebeharrak hauetako baten edo batzuen bidez:
 - Gipuzkoako egoitzara/bulegora esleitutako langileen zibersegurtasun ziurtagiria, indarrean dagoena, ziurtapen espezifiko hauetakoren batean: CISA, CISM, CISSP, GIAC Information Security Professional, CompTIA CASP, CEH.
 - Aipatua agertzea argitalpen espezializatuetan, zibersegurtasun zerbitzuen hornitzaile gisa aitortutakoetan.
 - ISO estandarren edizioan espezializatutako langileak edukitzea.
 - Zibersegurtasun industrialeko proiektu espezializatuen buru izana zenbait programatan, hala nola H2020, Etorgai edo antzekoetan.
- d) Esperientzia zibersegurtasuneko proiektuak gauzatzean. Beharrezkoa da, jarraian aipatzen direnak bezalako hiru proiektu gutxienez eginak izatea azken hiru urteotan, bi eremu hauetakoren batean:
 - Zibersegurtasun diagnostikoa edo industrietako zibersegurtasun plan gidariak lantzea.
 - Industrietan zibersegurtasun soluzioak ezartzea.